

# IDUZKIA

Iduzki alde goizean,  
baloi dirdiranta.  
Zoin ederra ziren, jauna,  
eguna argitzean !

Hego alde eguerditan,  
baloi dirdiranta.  
Zoin beroa ziren, jauna,  
zeru zabalean !

Mendebal arratsaldean,  
baloi dirdiranta.  
Zoin gorria ziren, jauna,  
orai, gordetzean !



## HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua gogoz ikasi. Doinuaren zulentasuna landu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu.</li> <li>◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu.</li> <li>◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.</li> <li>◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne.</li> <li>◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.</li> </ul>
MUNDUARI OHARTU. Eguzkiaren egonaldiak (faseak) definitu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Animalien eta landareen biziaren ezaubideei ohartu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Bere burua kokatu leku batean.</li> <li>◆ Bere buruari ezaubideak eman eta kodetu.</li> </ul>
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Lexikoa landu (eguzki alde, hegoalde, mendebalde).  + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi.</li> <li>◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki.</li> <li>◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan.</li> <li>◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili.</li> <li>◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...).</li> <li>◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili.</li> <li>◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.</li> <li>◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu.</li> <li>◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...).</li> <li>◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.</li> </ul>
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.</li> </ul>	

## USTIAPENA (egin moldea)

### 1. Eguzkiaren egonaldiak definitu :

- Eguzkialdea erakutsi ; baloinaren itxura mimatu : hurrek besoekin baloina itxura emaiten dute gorputza ekialdera makurtuz.
- Hegoa erakutsi ; baloinaren itxura mimatu :
  - beroaren adierazteko, izerdi tantak aurpegian mimatzen dira eskuekin ;
  - zeru zabalaren adierazteko, bi besoak zabaltzen dira, gorputza xut dela.
- Mendebaldea erakutsi eta eguzki sartzea mimatu : gorputza mendebaldera makurtu, burua gainbehera apalduz eta besoen artean gorde.

### 2. Kanpoan, eguzkiaren tokia behatu tenore/ordu ezberdinetan.

- Eguzki ordulari bat lurrean egin egun osoko emaitzak bilduz.

### 3. Karta jokoak.

3.1. Hurrengo orrian dauden kartak moztu eta hauek erabili :

- lehen zutabekoak (eguzkia eta haurraren jeikitzea)
- hirugarren zutabekoak (eguzkia eguerditan eta haurra bazkaltzen ari)
- bosgarren zutabekoak (eguzki sartzea eta haurra ohean)

Joko hau taldean eginen da. Borobil handi bat marraztu behar da, ordulari baten gisa. Ordulari orratz bat egin bestalde. Kantuaren arabera, hiru sekuentziak adierazten dituzten irudiak (pareka) ordularian kokatu beharko dira (doakien tenore tokian). Halaber, orratza mugiaraziko da.

3.2. Beste gisa batez egin daiteke, taldean hori ere : lehenago aipatzen diren hiru eguzki irudiak hartu eta gelako paretetan itsasi behar dira eguzki egonlekuaren arabera (goizekoa ekialdeko paretan, eguerdikoa hegoaldeko paretan eta mendebaldekoa mendebaldeko paretan). Kantua eman arau, hurrek hiru eguzki irudiak seinalatzen dituzte.

3.3. Hamar irudi : eguzkiaren bost egonaldi eta hurrak egunean bizi dituen bost une.

Hurrei galdegiten zaie irudien deskribatzeko. Ondotik, hurrek lotura egin behar dute eguzki egonaldi bakoitzaren eta berek egunean zehar egiten dutenaren artean.

## HIZKUNTZA HELBURUAK :

1. Kanpoan...(itzala).

- Iragana:* Oixtian/arestian itzala hor zen.  
*Oraina :* Orai hemen da.  
*Geroa :* Eta gero, non izanen da?

*Ergatiboa* : Oixtian/arestian, itzalak x...urratseko izaria/neurria zuen/zeukan.  
Orai, itzalak izari gutiago/gehiago du/dauka.  
Gero, ez dakigu.

*Konpletiboa* : Oixtian/arestian ikusi dugu itzala hor zela.  
Zer ikusi dugu oixtian/arestian ?

2. Eguzkiaren bost kokapenen kartak eta bost itxura horien artean joko bat egin daiteke (Memory jokoaren gisan) : 5 + 5 kartak itzuli mahai gainean, nahasi eta pareak (bikoteak) egin behar dira.

*Erranaldiak eraiki* : Goizean jeikitzen naiz.

*Oharra* : maiz erranaldi irringarriak entzuten dira."Eguerditan lo naiz".

*Ezezko formak* : Eguerditan ez naiz lo.

*Izan aditza* : Hirugarren karta multzo bat gehi daiteke hirugarren pertsonaren lantzeko, singularrean zein pluralean. Izen propioarekin ere (ad. Katixa).

Goizean mutikoa lo da. Eguerditan neska eta mutikoa bazkaltzen (ari) dira.

☺ **Karta jokoaren marrazkiak margo itzazu.**

#### **Osatzeko :**

→ **ikus** *Eguzkia eta itzalak* liburua. Ed. Ecole des loisirs.

→ **entzun** *Nere etxea (Ikusten duzu goizean...)* kantua. J.B. Elissanburu.

→ **ikus** *Eguzkia nere logelan* kantua. Gure abestiak 1.2. Heziketa musikal naturalerako haur abestiak.





